

TXOSTEN JURIDIKOA, HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMEAN (HEOCEAN) ZEDARRITZEN DIREN EUSKARAZKO KOMUNIKAGAITASUN-MAILEN EBALUAZIOA ETA EGIAZTATZEGINTZA ARAUTZEKO, ETA EBALUAZIO- ETA EGIAZTATZE-JARDUERA HORIEK GAINDITZEN DITUZTEN EUSKARA-IKASLE HELDUENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAK EGITEKO IRIZPIDEAK FINKATZEKO DEN AGINDUA HIRUGARRENEZ ALDATZEKO ABIATU DEN AGINDU-EGITASMOARI BURUZKOA

SARRERA

2025eko irailaren 9ko Agindu bidez, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak abian jarri zuen Agindu mailako xedapen-egitasmo berri bati dagokion prozedura, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOCean) zedarritzen diren euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautzeko, eta ebaluazio- eta egiaztatze-jarduera horiek gainditzen dituzten euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdiak egiteko irizpideak finkatzeko.

Egitasmo-proposamena idatzi ondoren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Agindu-egitasmoaren behin-behineko proposamenari alde zurrerako onarpena ematerakoan, eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua eskatzen duena betetzeko, txosten hau ematen da.

Beraz, bidezkoa da momentu honetan, Xedapen Orokorrek egiteko onartu zen ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa arautzen duen apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10. artikulua diotenaren arabera, prozedura bideratzeaz arduratzen ari den sailaren txosten juridikoa ematea, kontuan harturik prozedura abiatzean sailburuak erabaki zuela HABEren Zuzendaritza nagusia izendatzea instrukzioa gauzatzeko administrazio-organo gisa.

Egitasmo honen kasuan HABE ari da dagokion prozedura bideratzen, beraz, erakundearen arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuaren 9. artikulua bere 2.e) atalean ezarritakoari jarraikiz, Kudeaketa zerbitzuaren arlo juridikoari dagokion aipatu egitasmoaren gaineko txosten juridikoa ematea.



Txosten honen helburua da 144/2017 Dekretuaren 10. artikularen 2. atalean zehaztutakoa, alegia:

«2.– Oinarri juridikoak ematea da txosten horren xedea da, aldez aurretik onartutako ekimenak euskarria izan dezan. Horretarako, ekimenaren alderdi hauek aztertu beharko dira: arauaren oinarri objektiboa, edukiaren legearekiko eta zuzenbidearekiko egokitasuna, eta araugintza-teknikaren jarraibideekin bat etortzea. »

Beraz, txosten hau aurreko paragrafoetan esandakoa betetzeko ematen da.

EGITASMOAREN XEDEA

Egitasmoaren izenburuaren arabera, aztertuko den testuaren xedea da Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC aurrerantzean) zedarrituriko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautzeko eta ebaluazio- eta egiaztatze-jarduera horiek gainditzen dituzten euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdiak egiteko irizpideak finkatzeko onartu zen 2020ko irailaren 9ko Aginduaren hainbat artikulua aldatzea.

Memoria justifikatzailean adierazi zen bezala, bost dira aldaketa bultzatu duten ardatzak. Lehenik, 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua indarrean sartzeko (eta, ondorioz, horrek ekarri duen hizkuntz-eskakizunen egiaztatze-asimetriak) egiaztatze-gintza horren harira moldatzea eskatzen du. Bigarrenik, behar bereziak dituzten eta egokitzapenak behar dituzten azterketarien ebaluazioa hobetzen da. Hirugarrenik A1 eta A2 mailak modu ofizialean eman ahal izateko oztopoak leuntzen dira. Laugarrenik, ikasleei ematen zaizkien dirulaguntzen esparrua zabaltzeko aukera ematen da, eta azkenik, antolakuntzaren aldetik, bateratze-saioak modu eraginkorrago batean egiteko moduak eskaintzen dira, eta ikerle, tutore eta epaimahaikideen funtzioak hobeto zehazten dira.

AURREKARIAK

Orain bideratu den egitasmoaren aurrekari zuzenak dira Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortzeko eta euskaltegien jarduerak arautzeko onartu zen azaroaren 25eko 29/1983 Legean eta, lege hori garatuz, uztailearen 22ko 179/2003 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz onartu diren egiaztatze-sistemak arautzeko xedapenak.

Horietatik lehen a Kultur a sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Agindua izan zen, HABEren Kurrikuluan jasotako euskararen gaitasun-mailak egiaztatze ko sistema arautu zuelarik lehenengo aldiz. Harrez gero, hiru aldaketa nabarmen burutu dira Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumetan zedarrituriko gaitasun-mailak egiaztatze ko:

1- 2011n, oinarri berriak ziren Curriculum berberaren gaitasun-mailak egiaztatze ko, Kultura sailburuaren 2011ko urtarrilaren 19ko Aginduaren bitartez.

2- 2016. urtean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren azaroaren 23ko Aginduaren bitartez, prozedura berriak onartu ziren 2015eko uztailaren 22ko Agindu bidez onartutako Curriculum berriari (HEOC aurrerantzean) zedarrituriko gaitasun-mailak egiaztatze ko.

3- Eta oraingo egitasmoaren xede den Agindua, 2020eko irailaren 9koa, Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumean zedarrituriko euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzeko onartu zena.

2020. urteko erregulazioaren aurretik onartutako xedapenei dagokienez, HABEren zuzendariak urtero egingo zituen deialdietan ezarritakoari biltzen ziren indarrean zeuden xedapenak, egiaztatze-prozesuetako partaide izateko bete beharreko baldintzei zegokienez.

Oro har, esan daiteke 2020ko araubide berria onartu arte, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleei zuzendutako deialdietan ez dela adinaren aldeko baldintza espezifikorik jaso egiaztatze-prozesuetako partaide izateko, Dekretu bidez araututako baldintza baita 16 urte izatea euskaltegi eta zentro horietako ikasle izateko, betetze- datari buruz zehaztasun gehiago finkatu gabe. Eta HABEk antolatutako deialdi irekietan parte hartze ko, berriz, 17 urteko adina beteta izatea eskatzen zen, matrikula egitean edo matrikula egindako dataren urte naturalean.

Ondoren, 2020ko irailaren 9ko Aginduaren onarpenarekin, adinarekin lotutako baldintza jasota gelditu zen komunikagaitasunen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen duen Aginduan, jarraian zehazten den moduan:

2.- HABEk euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleentzako egiten dituen egiaztatze gintza-deialdietan matrikulatzeko, azterketariak ikasgu horietako ikasle izateko uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoa bete beharko du. Agindu honetako 14. artikuluan aurreikusitako HABEren egiaztatze gintzarako beste deialdi-motetan matrikulatzeko, ezinbesteko baldintza

izango da azterketariak hamasei urte beteta izatea izena eman nahi duen azterketaldiko matrikula egiteko epearen barruan.

Alegia, xedapen honek jarraitu zuen nabarmentzen ikasleei zuzendutako deialdietan partaideek bete beharreko baldintzen artean eta beste edozein motatako deialdietan bete beharrekoen artean; eta ikasleei zuzendutakoak ez diren bestelako deialdi guztietako adina jaitsi zen arren, 17 urtetik 16 urtera, traskribitutako 12.2 artikulua eskatzen du adin hori beteta edukitzea azterketen matrikulazio epean.

APLIKAGARRIA DEN ARAUDIA

Helduen Euskalduntzearen alorreko xedapen orokorrak onartzeko prozeduran ondoren zehazten diren arauak dira aplikatu beharrekoak bereziki, indarrean daudenen artean modu orokorrean aplikagarriak suertatzen diren beste guztiez gain:

A) Edukiaren aldetik:

- a. 29/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, HABE erakundea sortzeko eta euskaltegiak arautzeko onartu zena.
- b. 179/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen jarduera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldeko finantzazioa arautzeko onartutakoa.
- c. 2015eko uztailaren 22ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak ezartzeko emandakoa.
- d. 2020ko irailaren 9ko Agindua, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzeko dena.
- e. 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua, Euskal Sektorre Publikoan euskararen erabilera normalizatzea.

B) Prozeduraren eta arauak idatzi eta osatzeko teknikaren aldetik:

- a. 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orkorrek egiteko prozedurarena.
- b. 78/2023 Ebazpenez, uztailaren 118koa, Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak.

ESKUMENA

DECRETO 73/2021, de 23 de febrero

Eskumen-eremuari dagokionez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuan eta ekainaren 30eko 7/1981 Gobernu Legearen 26.4 artikuluan jasotako eskumen orokorraz gain, HABE erakundea sortzeko eta euskaltegiak arautzeko onartu zen azaroaren 25eko 29/1983 Legean berariaz aurreikusten da Kultura eremuko sailaren sailburuak izango duen berariazko eskumena, euskararen ziklo edo gaitasun-mailei dagozkien ziurtagiriak arautzeko.

Halaber, azaroaren 25eko 29/1983 Legea garatuz, uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuan jasotzen da berriro ere, 4. artikuluan hain zuzen, Kultura eremuko sailaren sailburuari egiten zaion eskumen-aitorpena euskararen gaitasun-mailak egiaztatzeko sistema zehazteko, betiere Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan eta Europako Hizkuntzen Erreferentzi Markoanezarritakoarirraituz.

Aldi berean, Dekretu berberaren 17. artikulua aurreikusten du aukera euskaltegi-tako eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleei dirulaguntza-deialdiak zuzentzeko, eta Azken Xedepapenetatik Lehenengoan ahalmen nahikoa aitortzen zaio Kultura eremuko sailaren sailburuari Dekretuaren xedapenak garatzeko.

Beraz, esan daiteke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eskumen nahikoa duela Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOCean) zedarritzen diren euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautzeko, eta ebaluazio- eta egiaztatze-jarduera horiek gainditzen dituzten euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdien irizpideak finkatzeko.

AGINDU-EGITASMOA

1.- HELBURUA

Egitasmoaren helburua da indarrean dagoen Aginduaren eguneratu eta egokitzea da, izan diren Dekretu mailako aldaketak, behar bereziak dituzten azterlarien beharrak, maila xumeenen ikasketa ofizialtzeaa eta diruz lagun daitezkeen egoerak zabaltzea kontuan hartuta.

2.- EGITASMOAREN EDUKIA

Edukiaren egituraren aldetik, 20 artikuluz eta azken xedapen bakar batez osatua dago.

1. artikulua Aginduaren 4. artikulua aldatzen du egiaztagintza trebetasunez trebetasun egin dadin, 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuarekin bat eginez.

2. artikulua Aginduaren 11. artikulua aldatzen du, 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuari berariazko aipamena eginez.

3. artikulua Aginduaren 12. artikulua aldatzen du, eta betekizun berri bezala, ezartzen du urteroko azterketaldirako deialdiak aurreikusiko duela, kasua balitz, komunikagaitasun-maila bat egiaztatzeko azterketan matrikulatzeko aurretik egiaztatu behar den gutxieneko komunikagaitasun maila. Ez zaio arauari eragozpen juridikorik egiten, aurreikusten duen neurria urteroko deialdian izango delako eraginkorra, eta haren izapidetzea izango delako, beraz, hura modu arrazionalen egin ote den baieztatzeke unea.

4. artikulua Aginduaren 13. artikulua aldatzen du, eta 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretura bideratzen ditu egiaztatze-modalitateak. Ikuspegi juridikotik, guztiz ohikoa ez den arren hierarkikoki azpian kokatzen den arau batek berrestea goiko arau bati men egingo zaiola, esan gabe ere hala behar bailuke, ez da eragozpen juridikorik egiten, hirarkia-printzipioa errespetatzen den horretan. Edonola ere, arau juridikoak elkar bidaltzearen bitartez definitzeak, segurtasun juridikoaren aldetik, ez dirudi teknika juridiko aproposena, eta ondorioz, Dekretuak dioenaren edukin materiala islatuko duen idazkera bat ematea gomendatzen da.

5. artikulua Aginduaren 15. artikulua aldatzen du, entzunezko nahiz idatzizko ulermen-trebetasunak euskaltegian bertan egiaztatzea ahalbidetuz.

6., 7. eta 8. artikuluek Aginduaren 16. artikulua aldatzen dute. Atalka ebaluatutako trebetasunen araberako zatikako egiaztagiriak B1 mailatik aurrera emango direla zehazten da, etorkizunean euskaltegietan egiazta daitezkeen mailak oinarritzkoetatik gora izatea ahalbidetzea da eta, ondorioz, horrela egiazta ezin daitezkeen mailaiei eragiten die 6. atalak, hots, gainontzeko mailetan komunikazio-gaitasun orokorraren

inguruko HABEren egiaztatze-proba gainditzea. Lehen aipatu den bezala, etorkizunean har daitezkeen erabakien arrazionaltasunaren analisia momento horretan burutzekoa denez, hemen ez da oztopatzen.

9. artikulua Aginduaren 23. artikulua aldatzen du. Bertan, berridatzi egiten da mailaren epaimahaiaren zereginen esparrua, ebaluatzaile ikerleak esandakoa balioetsi beharra desagertzen delarik eta soilik aktako kalifikazioa eguneratzeko zeregina mantenduz. Erabaki programatiko bat den heinean, ez da eragozpen juridikorik topatzen.

10. artikulua Aginduaren 25. artikulua aldatzen du eta bateratze-saioen metodologiarako aukera zabalagoak ematen ditu, modu telematiko aurreikusiz. Ez da eragozpen juridikorik topatzen.

11. artikulua Aginduaren 29. artikulua aldatzen du, eta bertan egiaztatze-proben inguruko zehaztapenetan ezarritakoa luzatzeko ahalmenari %60ko muga desagertaritzen zaio. Ikasleen mesedetan hartzen den neurri bat den heinean, ez da eragozpen juridikorik topatzen.

12. artikulua Aginduaren 37. artikulua aldatzen du, eta beste idazkera bat ematen die egiaztatze-epaimahaikideen egitekoei. Hor hiru aldaketa proposatzen dira, eta mamitsuak dira guztiak: lehenik, gaitasun-probak kalifikatzearen funtzioa desagertzen da, orain kalifikazio horiek azterketariei igortzera mugatuz. Igortzera mugatzen da ere Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko eskaerei erantzuteko tutoreek idatzitako proposamenekiko lana, haiek jada onartu behar ez dituztela. Hirugarrenik, laginak berrikusteko zereginari eusten zaio, baina hori kalifikazioen ondoren gertatuko da, eta hortik ondoriozta daiteke lan prospektiboa izango dela, etorkizunerako prozesuaren kalitatea hobetzera zuzendua, baina ez diona uneoro abian den deialdiari eragingo. Txosten honi dagokionez, non debekatuta baitago, legeak ahalbidetzen eta gaitzesten duena azaltzeaz haratago, erabakien egokitasunari buruzko balorazioak egitea (ikus Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 6.2 artikulua), ez da oztopo juridikorik ikusten, baina bereziki azpimarratzen da aldaketa honen edukinaren eragin sakona, izan ditzakeen ondorioetarako.

13. artikulua Aginduaren 38. artikulua aldatzen du. Tutoreek zeregineak ez dira, etorkizunean, proposamenaren baitan, probak bere kasuan birkalifikatu eta epaimahai buruari igortzera mugatuko; aitzitik, haiek izenpetuko dituzte. Aplikagarria da, zentzu honetan, aurreko paragrafoan azaldutakoa.

14. artikulua Aginduaren 39. artikuluan lehen tarteki bat idazten du, zuzentzaileen .lanen artean haien prestutasuna azaltzea erantsiz. Juridikoki ez dirudi egokia eta atal sustatzaileari beste idazkera bat eman diezaion eskatzen zaio, prestutasuna subjektiboa den heinean ez dirudielako juridikoki eska daitekeen zer bait.

15. artikulua Aginduaren 40. artikuluan, 12. artikulua egin duen aldaketarekin bat eginez, ebaluatzaile ikerlearen zereginak berridazten ditu, epaimahaiaren onarpena desagertaraziz. 12. artikuluari buruz esandakoa, ondorioz, modu Berean zaio aldaketa honi aplikagarri.

16. artikulua Aginduaren 43. artikulua aldatzen du, bere edukina, aurrekoarekin koherentziaz, ez A1 eta A2 mailetara mugatuz. Ez dago eragozpenik.

17. artikulua Aginduaren 44. artikuluari tarteki bat gehitzen dio, azterketari guztiarekin, behar bereziak dituztenekin bereziki, eskaerei eta prozedurari buruzko akordioak beti modu idatzian jaso eta bidal daitezkeen. Ziurtasun juridikoa eta prozeduraren objektibotasuna indartzera bideratutako aldaketa bat da, eta juridikoki zuzena da.

18. artikulua Aginduaren 45. Artikulua berriro ere Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuareki lotzen du, eta aipamena zuzena eta arrazoizkoa da.

19. artikulua Aginduaren 53. artikuluko atal bat kentzen du.

20. artikulua Aginduaren 53. Artikuluan, arestian aipatu den eran, etorkizunean diruz lagungarriak izan daitezkeen maila eta modu berriak HABEko zuzendari nagusiaren esku jartzen ditu. Ikasleen mesedetarako neurri bat da eta ez da eragozpen juridikorik topatzen.

Azken xedapenak aginduaren garapena Zuzendari Nagusiaren eskutan uzten du. Aurreikuspen hori HABE sortu zuen 29/1983 legearekin bateragarria da eta ez da oztopo juridikorik ikusten.

3.- EGITASMOAREN PROZEDURA

Tramitazioari dagokionez, Xedapen Orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 8. artikuluan ezartzen du alde zuzeneko kontsulta, entzunaldia eta informazio Publikoa ezinbestekoak izango direla hiritarren eskubideak ukituta suerta daitezkeen xedapen-egitasmoen kasuan.

Horrelako kasua izanik arau-egitasmoak jasotzen duena, gauzatutza ematen da alde zuzeneko kontsulta espedientean agertzen diren izapide eta dokumentuen arabera.

Genero-eraginaren gaineko txostenen aldetik, berriz, prozedura abitzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak emandako Aginduaren bidez zedarrituriko prozeduran adierazi bezala, ez da beharrezkoa txosten hori, Eusko Jaurlaritzak 2012ko abuztuaren 21ean onartutako Jarraibideen arabera, hain zuzen ere, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendariaren 40/2012 Ebazpenez argitaratutako Lehenengo Jarraibidearen 2. atalaren 1.d) puntuan zehaztutakoaren arabera. Jarraibide horri jarraikiz, ez da beharrezkoa generoaren arabera eragin-txostena egitea xedapen-orozorrak egiteko prozeduran, egitasmoaren xedea indarrean dauden arauak aldatzea bada, betiere aldatzea funtsezkoa ez bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez, eta egitasmoaren kasuan ez da funtsezkoa. Edonola ere, egokia iruditu zaio organo sustatzaileari, 6/2022 legea hobeto betetzeko, txosten hori ere biltzea.

Gainera, HABEren Batzorde Akademikoan eta Zuzendaritza-batzordean ere ordezkatuta daude euskaltegiak, baita ere helduen euskalduntzeari begira interesa izan lezaketen administrazioak, hau da, udalak, EUDELen bitartez, eta hiru foru-aldundiak, ordezkaritza baten bidez.

Beraz, egitasmoaren prozedurarekin aurrea egiteko, ondoren zehaztutako izapideak gauzatu behar dira: esan daitezke batzorde horien bitartez eta ordezkaritza horiekin burututako edo burutuko diren bileren edo izapideen bitartez gauzatu entzunaldia bidezkoa dela.

- Emakunderen txostena, genero-eraginaren inguruan txosten honetan esaten den aberretsiz edo ezetsiz.
- Kultura eta Hizkuntza Politika saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua).
- Informazio Publikoa, hiritarren aurrean
- Entzunaldia hasera aginduan hala zehaztutako interesdunei, sektorea ordezkatzen duten solaskidetzat joak izan direlako.
- Legezotasun txostena 7/2016 Legeak, ekainaren 2koak, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeak, aurreikusten duen moduan.

- Ekonomi Kontrolerako Bulegoaren txostena (urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 4.2 artikulua).

4.- GENEROAREKIKO ERAGINAREN AURRETIAZKO BALORAZIOA

Emekaundek bere txostenean esan dezakeena salbu, ez da generoarekiko eragina izan dezakeen aldagairik antzematen, aurretiaz esandakoa salbu.

5.- ARAUAK ENPRESEN ERAKETAN, ABIARAZTEAN ETA FUNTZIONAMENDUAN DUEN ERAGINARI BURUZKO EBALUAZIO-TXOSTENA.

Izapidetzen ari den araua xedapen orokorra denez, Euskadiko Ekintzaileei buruzko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoa betez, arauak enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan duen eraginari buruzko nahitaezko ebaluazio-txostena egiten da.

Arauak eragiten dion sektore ekonomiko bakarra euskaltegiak dira. Administrazioak Egiaztagintzako probak egitea erabakitzen duen moduaren eraginpean daude ikastetxe horiek, gaur egun indarrean daudenak baino maila egiaztatzeko zeregin gehiago har baitituzakete eta HABEk zehazten duen moduan dirulaguntza jaso dezaketen ikasleak jasotzen baitituzte. Hala ere, ez da uste horrek guztiak enpresen funtzionamendua zailtzen duenik; aitzitik, etorkizunean euskaltegiek orain arte aurreikusitakoak baino maila-proba gehiago egin ahal izateak haien autonomia eta eskaria areagotu ditzake. Nolanahi ere, eta sektorearen etorkizuneko bilakaerari begira, gogorarazten da, halaber, udal-euskaltegien nahiz euskaltegi pribatuen funtzionamenduak bere finantzaketa-tresna propioak dituela, eta tresna horiek beti eguneratzen direla sektorearekin harremanetan jarrita. Beraz, enpresa-funtzionamenduaren ikuspegitik, ez dago eragozpenik araua planteatu den moduan izapidetzeko.

Orain arte esandako guztiaren arabera egiten dut txosten juridiko hau, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen menpe jartzen dudana.

Eñaut Otazo Alza

HABEko aholkularitza juridikoa

